

## 65 URTE GEROAGO

1936ko uztailaren 18an aldegin behar izan omen zuen etxetik Antoniok, emaztea eta hiru haur utzita. Rezola buruzagi jeltkidearen laguntzaile ibili zen, ez jeltkidea zelako, herri berekoa, Villafrancakoa, zelako baizik. Antonio ez zen jeltkidea. Izatekotan sozialista izango zen -Pablo Iglesiasen sindikatuak eskaintzen zituen etxeetako bat lortzea zuen ilusio- baina karnetik gabekoa. Karnetik ez edukitzeak gauzak asko zaildu zizkion emazteari, Antonio preso hartu eta laguntza eske hasi behar izan zuenean: sozialistengana joateko esaten zioten jeltkideek, jeltkideengana joateko sozialistek. Kartzelara bisitan joateko salbokonduktoak eskuratzeko beharrezko sinadurak ere ez ziren lortzen errazak erreketek frankistez jositako herrian. Gerra galduta kartzelatik atera eta lanik eta etxerik gabe geratu zen Antonio, beste herrikide batek errenta ez pagatzeagatik bota baitzuen familia osoa etxetik. Francori idatzi zion gutuna Antoniok, gerra galdu arren lanerako eta etxerako zuen eskubidea aldarrikatuz. Udalak pisu bat utzi zion Rezolari konfiskatutako etxean.

1936ko uztailaren 18an «Villafranca de Oria» deitzen zena «Ordizia» deitzen da 65 urte geroago. Zer gehiago aldatu da? Antonioren alabak Donostiako hospital militarrean ikusi zuen aita preso. Alcala-Mecon ikusi du iaz seme zaharrena. Erreketek, beharrezko karnet guztiak eskuan, agintean segitzen dute, sobrare.

Horregatik bultzatzen dute amnesia, zein diren eta izan diren jakin ez dezagun. Iragana ahaztu behar dugu. Antonioren bezalako historiak ez dira kontatzen eta kontatu ditzaketenak badoaz pixkanaka. «Historia ezagutzen ez duenak errepikatzeko arriskua du» esaten dute, baina hori ez da txarrena. Txarrena da enteratu ere ez dela egingo errepikatzen duenean; egiten ari denaren arrastorik ere ez duela izango. Beraz, hobe du, estupidoa izaten jarraitu nahi ez badu behintzat, bere historiari buruzko galderak egiten hastea erantzunak eman diezazkiokeen inor geratzen zaion artean.